

GIG 29

PIKOTEAZPIA HARRI-KOSKORREZKO HONDARTZA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Pikoteazpia hondartza, harri-koskorrezkoa, sedimentu-kordoi bat da, luzean 1.400 metrokoa, eta Pikoteko itsaslabarraren oinean dago.

Hondartza osatzen duten harri-koskorak itsaslabarra goitik behera erori ondoren sortuak dira; olatuek, izan ere, etengabe egiten dute talka itsaslabarrean, eta higadura horren ondorioz, bai eta itsaslabarraren oinean dauden arroka-zatiek ondoren eragiten duten urraduraren ondorioz ere, itsaslabarrak amore-edo ematen du azkenean, eta goitik behera erortzen da. Higadura-prozesu horrek ondorio garbia dauka: ertz arrokatsuak, apurka-apurka, atzera egitea. Labarretik behera itsasbazterrerantz eroritako materialak biribilduz joaten dira gero, behin eta berriro elkarren kontra talka egitearen poderioz. Ondoren, olatuek ordenatu egiten dituzte material horiek, eta hondartzako kordoa eratzen da. Harri-koskorak 10-40 cm bitartekoak dira, eta eskuarki, teilakatuta daude.

Hondartzak islapenezko profila du. Itsaslabarraren ondoko hondartza-eremua malda txikoa da, ia laua, luzean 10 metro ingurukoa, swash-prozesuen ondorioz sortua (olatuak kolapsatzearen eta barreiatzearen ondorioz, alegia). Itsaso aldera, berma bat dago, malda handikoa (15°), eta haren eraginez, olatu erasotzaileak, silueta batimetrikoen norabide berean jartzen direnez, islatu egiten dira, batzuetan.

Olatu erasotzaileek altueraren nahiz periodoaren aldetik izaten dituzten gorabeherek eta mareak direla medio itsas mailan izaten diren aldaketek eragin egiten dute hondartzaren profilean, eta moldatu egin behar izaten du urtaroen araberako aldaketa horietara. Eta hondartzan zehar harri-koskor handi-txikiak banatzeko moduan ere eragiten du energia-gradiente horrek.

NOLA BERTARATU

Algorritik (GIG 15) zabalgunean aurrera mendebalderantz oinez joatea da aukera bat, eta beste bat, Elorriagako atsedenekutik behera doan pistatik jaitea.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Itsasbeheran soilik joan daiteke Pikoteazpira, eta arriskutsu samarra ere badenez, hondartza hau Elorriagako begiratokitik edo Algorrikotik ikustea gomendatzen dugu.



Pikoteazpia hondartza, Elorriagako begiratokitik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 558971 m / Y= 4794108 m / Alt.= 6 m



Hurbilagotik argi eta garbi ikusten da goiko plataforma subhorizontala.